



ONDARROAKO UDALA

## KIROL BATZORDEAREN BILERAKO AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2015/4  
**Eguna:** 2015-10-21 (asteazkena)  
**Ordua:** 19:00  
**Tokia:** Udaletxeko 2. Pisuko batzar gela

### Bertaratuak

Unai barrenetxea, kirol batzordeburua  
Mikel Aramaio, Bilduko ordezkaria  
Adrian Osa, E.A.J.ko ordezkaria  
Amalur Bedialauneta, Arrigorri Itsas Arrantza Elkarteko ordezkaria  
Secundino Badiola, Artibai Judo Taldeko ordezkaria  
Jon Haitz Badiola, Eskilantxarri elkarteko ordezkaria  
Mila Rodriguez, Udal kiroldegiko zuzendaria  
Gorka Elordi, Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkaria  
Jose Irueta, Koaxi Triatloi Taldeko ordezkaria  
Aitor Elordi, Tontorramendi Aurrera Mendi Taldeko ordezkaria  
Jose Ramon Osa Etxaburu, idazkaria

### Bertaratu ezina adierazi dutenak

### Bertaratu ez direnak

Asoc. Inmigrantes Senegaleses de Ondarroako ordezkaria  
Asoc, Senegaleses Pueblao de Bassoul en Euskadiko ordezkaria  
Aurrera Geuria Txirrindu Taldeko ordezkaria  
C.D. Aurrerako ordezkaria  
Karate taldeko ordezkaria  
Ondarroako Atletismo klubeko ordezkaria  
Ondarroako Pala Taldeko ordezkaria  
Ondarroako Urpeko Elkarteko ordezkaria  
Ondarru Igeri Taldeko ordezkaria  
Orkatzen Peñako ordezkaria  
Zubi Zahar ikastolako ordezkaria

### Aztergaiak

1. 2015eko uztailaren 9ko aktaren onespena, hala badagokio.
2. Oinarrien azterketa, 2016ko dirulaguntza deialdia egiteko.
3. Herriko taldeen eskaerak onartzea. Udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeko.
4. 2015eko Kirol Sariak..
5. Eskaerak eta galderak.



## ONDARROAKO UDALA

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1. 2015eko uztailaren 9ko aktaren onspena, hala badagokio.

Aho batez onartu da akta.

#### 2. Oinarrien azterketa, 2016ko dirulaguntza deialdia egiteko.

Batzordeburuak esan du aparteko bilera bat egingo dela, datorren urteko dirulaguntza deialdiko oinarriak aztertzeko. Bere ustez, ez dagoela aldaketa nabarmenik egin behar esan du baita ere, ikutu txikiak eginda nahiko izango dela.

Batzarraren data adostu da eta azaroaren 11n, 19:00etan, izatea erabaki da.

#### 3. Herriko taldeen eskaerak onartzea Udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeko.

Udal kiroldegiko zuzendariak ondorengoak esan ditu:

- Eskaera gehienak jaso dituztela.
- Eskilantxarriena ez dutela jaso eta agian aurten ez dutela instalaziorik beharko.
- Egon diren eskaerak aipatu ditu.
- Aldagelekin dauden arazoak ere mahairatu ditu...jende asko dabilela kiroldegian eta kiroldegiko autoprotekzio planaren aplikazioak hainbat arazo sortzen dituela (planaren arabera bakarrik 16 pertsona ahal dira egon batera aldagela batean). Gai honi buruz hitz egin da ... batzuk pasilloen egoten direla arropak aldatzen, txandak zaindu behar direla aldagelak erabiltzeko, ...

Azkenik esan du eskaera guztiak baimentzea proposatzen duzela 2016ko ekainaren 30era arte.

#### 4. 2015eko Kirol Sariak.

2015eko Kirol Sarietarako proposamenak aurkezteko epea ipini behar dela esan du batzordeburuak eta abenduaren 10a ipini da azken egun modura, proposamenak aurtkezteko.

#### 5. Eskaerak eta galderak.

Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkariak, Arraun egoitzan dituzten arazoak aipatu ditu.

Eskilantxarri Elkarteko ordezkariak esan du termu bat ipini nahi dutela eurak erabiltzen duten lokalean.

Batzordeburuak esan du Udalak antolatuko duela aurten Egia-Iriondo memoriala eta laguntza eskatu du lasterketa egunerako.

Ondoren batzarra amaitutzat eman du batzordeburuak.

Jose Ramon Osa Etxaburu  
Idazkaria



O.e.  
Unai Barrenetxea Gurrutxaga  
Kirol batzordeburua